

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA:

Gure proiektua ikasteko zailtasunak dituzten HH, LH, DBH eta BATXI-ko ikasleentzat ikasketa modu desberdin bat eskaintzea da. Gaur egun gero eta gehiago direnez arazo hauek aurkezten dituzten gazteak, gure egunerokoa gazte hauek ikasterakoan pasatzen dituzten rato txarrak ikusteko aukera izan dugu. Ikastolek ez dute ikasle hauek ebaluatzeko modu desberdinik eta denei poltsa berean sartzen digutenez, batzuei askoz ere gehiago kostatzen zaie aprobatazea edota kurtsoa pasatzea. Asko dira TDA (Trastorno por Déficit de Atención) baten ondorioz, DBH kostata amaitu ondoren Batxilerra kurtsatzeko beldurrarekin modulo bat egitera joaten direnak; beraien benetako nahia ez denean hori. Horregatik, guk gure proiektuarekin ikasle hauei laguntza eskeini nahi diegu, gizarte inklusiboago batera bultzatuz; denek aukera berdina izan ditzagun.

Ikasketa metodo berriekin ebaluatuko genien ikasle hauei, besteek azterketa mota bat dutenean, hauei beraien abileziak kontuan hartutako azterketa bat ezarriko genien. Hori bai, desberdintasunik erakutsi gabe; hau da, dena gela berean egingo zen eta zerbait beharko bagenu ikasleari korreo elektronikoz jakinaraziko genioke guk edukiko genukeen gelara etortzeko. Izan ere, beste ikasleen aurrean eginez gero, deseroso sentituko liratekeen.

Irakasle eta tutoreek ez dakite ikasle hauekin nola jokatu. Hori nabaria izan dugu ikasten daramagun urte guzti hauetan. Horregatik, kurtsiloak eskeiniko genizkien, zer egin, nola egin eta zergatik irakatsiko genienak. Gelan, zer esan, mahaien distribuzioa: zer filatan eta zeinez inguratuta, gurasoekin nola mantendu egunero-egunero eraman behar duten laburpena... Gai honetan gurasoak ere sartzen dira, hauek dira askotan bigarren irakasle bezala jokatu behar dutenak ez dakitenean nola egin. Hori dela eta gurasoei lana murrizteko ere erabiliko dugu proiektu hau, eta beraiei irakasteko etxean ikastea, zer pautak jarraitu beharko lituzketen.

Azkenik, ikasleak ere kontzientziatu nahi ditugu. Denek dauzkagulako puntu ahulagoak eta ezin dugulako hauetaz burla egin. Horregatik, 2 hilabetez behin hitzaldi eta dinamika saioak antolatuko genituen DBH eta BATXI-ko geletan, ikasteko nahasmendu bat zer den azalduz eta bere "nibel" desberdinak.